



ARANTZAKO UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
© 948 634 005
udala@arantza.eus
www.arantza.eus

OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

Organoa: Udalbatza
Deialdia: Lehenengoa
Bilera mota: Arrunta
Eguna: 2022.01.25
Ordua: 18:00tan
Tokia: Herriko Etxeko areto nagusia

Bertaratuak:

- Dabid Iturria Almandoz jn., EH Bildu.
- Imanol Lukanbio Larretxea jn., EH Bildu.
- Markel Jorajuria Elizondo jn., EH Bildu.
- Eneko Sarrias Zoco jn., EH Bildu.
- Joseba Pikabea Iribarren jn., EH Bildu.
- Leire Mitxelena Gamio and., EH Bildu.

Bertaratu ez direnak:

- Beñat Mitxelena Danboriena jn., EH Bildu.

Idazkaria: Nagore Madariaga Iriarte

AZTERGAIK:

1. AURREKO AKTAREN ONESPENA

2021/12/27ko akta aho batez onartzen da.

2. 2022KO LAN-EGUTEGIA ETA EGUN BALIOGABEEN DEKLARAZIO ONESPENA.

Idazkariak 2022ko lan-egutegia eta egun baliogabeen deklarazioa egin beharra dela adierazten du. Horretarako, Arantzako Udalaren langileekin eta alkatearekin kontsultatu ostean, lan-egutegi eta egun baliogabeen deklarazio proposamena aurkezten du.

Aipaturiko egutegia gauzatzeko hartu dira kontuan 140/2021 Ebazpena, apirilaren 9koa, Enpresa Politikaren, Nazioarteko Proiekzioaren eta Lanaren zuzendari nagusiak emana, Nafarroako Foru

Komunitatearen esparruan ordaindu bai baina errekuperatu behar ez diren 2022ko jaiegunen egutegi ofiziala ezartzen duena eta 154/2021 Foru Agindua, abenduaren 16koa, Lehendakartzakoa, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariak emana, zeinaren bidez onesten baita 2022ko lan egutegia Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko langileentzat.

Horregatik guztiagatik, Osoko Bilkurak, informazioa jaso ondoren, ERABAKI DU:

1.- 2022ko lan-egutegia eta egun baliogabeen deklarazioa egitea honako egun hauek ezarriz:

- Urtarrilaren 1a: Urteberri eguna.
- Urtarrilaren 6a: Errege eguna.
- Otsailaren 11: Inauteri eguna.
- Apirilaren 14a: Ortzegun Santua.
- Apirilaren 15a: Ortzirale Santua.
- Apirilaren 18a: Pazko astelehena.
- Uztailaren 7a: San Fermin eguna.
- Abuztuaren 15a: Andre Mariaren Jasokundea.
- Abuztuaren 16a: Herriko bestak.
- Abuztuaren 17a: Herriko bestak.
- Abuztuaren 18a: Herriko bestak.
- Abuztuaren 19a: Herriko bestak. .
- Urriaren 31: Jai eguna.
- Azaroaren 1a: Santu Guztien eguna.
- Abenduaren 3a: San Frantzisko Xabierreko eguna.
- Abenduaren 8a: Ama Birjinaren Sortzez garbi eguna
- Abenduaren 9a: Jai eguna.
- Abenduaren 26a: Eguberri egunaren biharamuna.

2.- Orobat, baliogabeak deklaratzeko, 2022an epeak kontatzeari dagokionez, larunbat eta igande guztiak eta udal bulegoetarako jaiegun gisa ezarri diren egunak.

3.- Arantzako Udalera zerbitzura dauden langileen lanaldia 2022rako egiazko 1.592 lanorduetan finkatzea.

4.- Eguneroko lanaldi orokorra, astelehenetik ortziratera, 7 ordu eta 20 minutukoa finkatzea. Ordu-tegiaren zati finkoa 8:30etatik 14:00ak arte izanen da.

5.- Udal bulegoetan jendeari arreta egiteko ordutegia onestea astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 13:00etara.

6.- Akordio hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta udaletxeko iragarki taulan argitaratzea.

3. 5. POLIGONOKO 966. LURZATIKO XEHETASUN AZTERLANAREN BEHIN BETIKO ONESPENA.

Idazkariak 126/2021 Alkate ebazpenaren bidez Javier Maria eta Jose Zugarramurdi Alzuri senideek aurkezturiko 5. poligonoko 966. lurzatiko xehetasun-azterlanari hasierako onespena eman zitzaiola azaltzen du.

Hau horrela izanik, 2021eko azaroaren 25ean 268 zk. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen hasierako onespena. Jendaurreko epean alegaziorik aurkeztu ez denez, idazkariak azaltzen du Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen Testu bategina onesten duen uztailaren 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren 74. eta 79.1. artikuluen arabera, behin betiko onespena eman beharko zaiola xehetasun-azterlanari ondotik Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzeko.

Osoko Bilkurak, informazioa jaso ondoren, ERABAKI DU:

- 1.- Behin betiko onespena ematea Javier Maria eta Jose Zugarramurdi Alzuri senideek aurkezturiko 5. poligonoko 966. lurzatiko xehetasun-azterlanari.
- 2.- Nafarroako Aldizkari Ofizialean akordio hau argitaratzea, dagokion xehetasun-azterlanarekin batera.

4. ESKOLAKO FATXADA BERRITZEKO OBRA GAUZATU AHAL IZATEKO DIRULAGUNTZA ESKATZEKO ONESPENA.

Idazkariak 2021eko abenduaren 16ean Nafarroako Aldizkari Ofizialean ondorengo dirulaguntza deialdia argitaratu zela aipatzen du:

"282E/2021 EBAZPENA, azaroaren 30ekoa, Hezkuntza Baliabideen zuzendari nagusiak emana, Nafarroako Foru Komunitateko udal eta kontzejuei dirulaguntzak emateko deialdi bat onesten duena, Haur Hezkuntzako 2. zikloko eta Lehen Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntza-DBHko ikastetxe publikoak hobetzeko eta birmoldatzeko obra proiektuak egin ditzaten."

Horri dagokionez, 2022ko aurrekontuan 1 3232 6320001 ESKOLA MARGOTZEA partida zenbakia duen inbertsio egiteko gastua zehaztuta dagoela gogorarazten du, izan ere, eskolako fatxadaren inguratzailea hobetu beharra zegoela ikusten zuen Udalak. Horrela bada, LUA ARKITEKTOAK enpresak Arantzako eskolako fatxadaren birgaitzea gauzatu ahal izateko memoria baloratu bat prestatu du. Bertan, egin nahi den obraren gastu osoa 44.639,27 € (BEZa barne) izanen litzatekela aipatzen da.

Gauzak honela, idazkariak azaltzen du aipaturiko dirulaguntzara aurkeztu ahal izateko, deialdiko 6. oinarriko b.3) puntuan xedaturikoaren arabera, Udalak obren onespinari buruzko eta oinarri hauek betetzeari buruzko, diruz laguntzeko eskatu den inbertsioaren zenbateko osoa adierazita, akordioa hartu beharra duela.

Osoko bilkurak, informazioa jaso ondoren, ERABAKI DU:

1.- Arantzako eskolako fatxadaren birgaitzeko obra onestea, LUA ARKITEKTOAK egindako memoria baloratua eta Haur Hezkuntzako 2. zikloko eta Lehen Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntza-DBHko ikastetxe publikoak hobetzeko eta birmoldatzeko obra proiektuak egiteko Hezkuntza Baliabideen zuzendari nagusiaren dirulaguntzan xedaturiko oinarrien arabera (282/2021 Ebazpen bidez emana).

2.- 44.639,27 €ko (BEZa barne) inbertsioa egitea onestea, beti ere obra kontratuaren esleipena Kontratu Publikoari buruzko 2/2018 Foru Legean xedaturikoaren arabera izapidetu ostean.

3.- Akordio hau Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Saileko Obra Atalari jakinaraztea, jakinaren gainean egon daitezkeen eta dagozkion ondorioak izan ditzan.

5. ARANTZAKO UDALA NAFARROA 2023-2027 ALDIRAKO MEDIALDEKO TOKI GARAPEN PARTE-HARTZAILEKO ESTRATEGIAREKIN BAT EGITEA CEDERNA GARALUR TOKIKO EKINTZA TALDEAREKIN BAT.

Ikusirik Nafarroako Landa Garapenerako Programaren barnean 2022an Nafarroako Mendialdeko Estrategia berria (2023-2027) abian jarriko dela, eta horrek estrategiak irauten duen urteetan Nafarroako erakunde publiko eta pribatuentzako LGP-LEADER dirulaguntzak kudeatzea ahalbidetuko duela, udalerriarentzat interesgarria izanik orain arte bezala Cederna Garalur tokiko ekintza-taldean parte hartzea, legez ezarritako quoruma beteta, bertaratutako zinegotziek aho batez onartu dute honako ERABAKI hau:

1.- Tokiko Garapen Parte-hartzaileko Estrategian eksklusiboki parte hartzea 2023-2027 aldirako. Estrategia hori 2022an idatziko da eta epealdi horretan berean, 2023-2027 aldirako, kudeatuko du Cederna Garalur tokiko ekintza-taldeak (IFK zk.: G31372063) berariazko 8. helburuaren barnean (hau da, "Landa-eremuetan enplegua, hazkundera, gizarteratzea eta tokiko garapena sustatzea, bioekonomia eta basogintza jasangarria barne"), NPE-Nekazaritza Politika Erkideko Nafarroako Plan Estrategikoaren (NPEPE) 2023-2027 aldirako Tokiko Garapen Parte-hartzailearen (LEADER) neurriaren barnean.

2.- Korporazioko kideek Cederna Garalur Tokiko Ekintza Taldeak (LGENFk % 65arekin lagundutako finantziazioarekin) Nafarroako LGP 2014-2020 programaren barnean udalerrian egindako lan onaren berri dute.

3.- Cederna Garalur Tokiko Ekintza Taldearekin parte hartzeko konpromisoa hartzea "eremu geografikoaren 2023-2027 aldirako Tokiko Garapen Parte-hartzaileko estrategia" prestatzeko lanetan.

4.- Konpromisoa hartzea Tokiko Ekintza Taldeko Batzorde Betearazleak edo organo baliokideak ezartzen duen kuota ordaintzeko, taldearen funtzionamendu-kostua finantzatzeko funts publikoek estali ezin duten zatian.

5.- Cederna Garalur Elkarteak 2023-2027 aldian deituko dituen bilera guztietan parte hartzeko konpromisoa hartzea, bere lurraldearen Tokiko Garapen Parte-hartzailea kudeatzeari dagokionez.

6.- Alkatetzari ahalmena ematea udal honen izenean Cederna Garalur Tokiko Ekintzako Taldearekin harpidetu ditzan akordio hau gauzatzearen ondoriozko agiri guztiak.

7.- Akordio hau Cederna Garalur elkarteari helaraztea.

6. SARA PINA YEREGUIREN HILKETA MATXISTA ARBUIATZEKO ETA GAITZESTEKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA.

Idazkariak azaltzen du berriki Tuterako Udalaren adierazpen instituzional bat bidali duela Nafarroako hainbat Udalei Sara Pina Yereguiren hilketa matxista arbuiatu eta gaitzesteko.

Arantzako Udalak gaiaren inguruan solasten du. Horri dagokionez, udala jakitun da eraso, hilketa eta bertze edozein ekintza matxista desagerrarazi beharreko arazoak direla, eta, horretarako, funtsezkoa dela erakunde publikoen lana eta lankidetzeta.

Osoko Bilkurak, informazioa jaso ondoren, ERABAKI DU:

1.- Sara Pina Yereguiren hilketa matxista arbuiatzeko eta gaitzesteko adierazpen instituzionala eguneko gai ordenan sartzea.

2.- Udalaren arbuioa eta gaitzespena adieraztea Sara Tuterako bizilagunaren hilketaren aurrean, eta une zail hauetan babesa eta elkartasuna adieraztea familia eta gertukoei.

3.- Bertze behin ere berrestea jendartean gertatzen den edozein motatako eraso, indarkeria edo jarrera sexistak arbuiatzen eta gaitzesten duela Arantzako Udalak, eta elkarlanean aritzeko konpromisoa hartzen duela emakumeek jasaten dituzten indarkeriak ezabatzeko, erakundeen erantzuna hobetzeko eta emakumeek ingurune guztietan askatasun osoa izanen dutela bermatzeko.

4.- Erakunde publiko gisa, konpromisoa hartzea emakumeen aurkako indarkeriaren arkako jarduteko apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legean ezarritako betebeharrak Udalari dagokion eremuan beteko direla bermatzeko.

5.- Gizarte osoari dei egitea emakumeen eta gizonen arteko desberdintasuna iraunarazten duten rol eta estereotipo sexistetan oinarritutako eredu kulturala aldatzera, bai eta indarkeria matxista

gaitzesten jarraitza eta indarkeria matxistetatik bizirik atera diren emakumeei babesa ematen jarraitza ere.

7. ALKATEAREN EBAZPENAK

132/2021 eta 1/2022-7/2022 arteko Ebazpenak berretsi egiten dira.

10. ESKAERAK ETA GALDERAK

Ez dira egiten.

Bertze aztergairik izan gabe, 18:40ak direnean, alkateak bilera bukatutzat eman du, eta nik, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.

ALKATEA,



Dabid Iturria Almandoz



IDAZKARIA,



Nagore Madariaga Iriarte